

2010 arrazoi martxan jarraitzeko

Milaka arrazoi genituelako elkartu ginen 2000. urtean, eta mila arrazoigatik ibili ginen martxan Euskal Herrian zehar 2005. urtean. Oraindik ere milaka arrazoi ditugulako jarraituko dugu martxan. Besteak beste, prekarietatea, pobrezia, indarkeria, ikusezintasuna, diskriminazioa... Horrela, 2010. urtean beste urrats bat emango dugu, eta 2008ko urrian Vigon elkartutako mundu osoko emakumeok berriz ere martxan jarriko gara lau jardueraremutan ekiteko: Ongizatea, Emakumeon aurkako indarkeria, Lana eta Bakea eta desmilitarizazioa.

Bidezkoa den eta bakean bizi den jendartea lortzeko, ezinbestekoa dugu berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna oinarri dituen mundu bat izatea. Bigarren mailako herritar izan nahi ez dugulako, eta bizitzaren arlo guztietan gure parte-hartzea kontuan hartzea nahi dugulako, emakumeon eskubideen gutuna sortu dugu Euskal Herrian lan egiteko tresna gisa.

Vigon ezarritako lan-ildoei jarraituz, hemen, Euskal Herrian, ardatz hauek oinarrituz hartzea beharrezkoa iruditzen zaigu: indarkeria sexista, prekarietatea, elikadura subiranotasuna, sexu eta ugalketa eskubideak.

1. Indarkeria sexista gure gizartean gertatzen den giza eskubideen urraketa larrienetakoa eta hedatuenetakoa da. Emakume izateagatik jasaten dugun biolentzia oroz ari gara: sexu erasoak, prostituzio behartua, lantokietako sexu-jazarpena, jipoiak eta emakumeon erailketak... Emakumeon aurkako indarkeria patriarkatuaren oinarrian dago, eta honek, gizartean emakumeok jasaten dugun mendekotasuna betikotzeko kontrol mekanismo gisa erabiltzen du biolentzia.

Duela urte gutxi arte, arazo pribatu eta familiar moduan ulertzen zenari, mugimendu feministak dimentsio sozial eta politikoa ematea lortu du. Testuinguru honetan botere publikoek erantzukizun zuzena dute.

Egun, sexu indarkeriak gizartearen gaitza izaten jarraitzen du; isiltasuna, diskriminazioa, zigorgabetasuna, emakumeon mendekotasuna gizonekiko, eta justifikazio teoriko eta psikologikoei esker, sexu indarkeriak jendartearen gaitza izaten jarraitzen du.

2. Prekarietatea oraindik ere emakume aurpegia du. Sexuaren araberako lan banaketan oinarritzen den eredu ekonomiko neoliberal eta patriarkala dago egun indarrean. Banaketa honen arabera, gizonezkoak lan merkatuan kokatzen diren bitartean, emakumeok sozialki gutxietsitako eta ordaindu gabeko lanak burutzeraz baztertuak izan gara, etxeko esfera pribatura, alegia. Honek, emakumeok gure bizitza propioa garatzeko dugun eskubide ahalmena zeharo mugatzen du, autonomia ekonomiko eta eskubide sozialetan jasaten dugun diskriminazioa dela eta.

Gobernuek eta politika ekonomikoak egiten dituztenek, ez dute baliabiderik ezta asmorik ere jartzen, emakumeok lan ordaindu duina izateko dugun eskubidea ziurtatzeko, are gutxiago krisi garaian.

Emakumeok lanik prekarioenetan jarraitzen dugu, malgutasun indize eta langabezia-tasa altuenenekin eta soldata baxuenekin, askotan gizonezkoak baino % 28 gutxiago kobratuz. Emakumeok ikusezinak gara. Gure lana ez da aintzat hartzen: ez politikan, ez ekonomian, ez erakundeetan, ezta gizonen aldetik ere.

3. Elikadura burujabetza, herriek beren nekazaritza eta elikadura politiken gainean erabakitzeke duten eskubidea da. Esparru honetan emakumeok egindako lana eta ekarpena diru poltsa komunera gehitzen da. Famili zapalkuntzak eragin zuzena du horretan, eta azkenean, jabegoa famili buruei dagokie, gizonezkoiei, alegia.

Beraz, emakumeoi ez digu etekinik ematen lan horrek; ez maila pertsonalean, ez ordain sarietan, ez eskubide sozialetan, ez eta identitate pertsonalean ere. Emakume nekazariok zein abeltzainok berezko ditugun lanei, etxeko lanak, etxearen zaintza eta haur zein adinakoen zaintza gehitu behar dizkiogu. Denak ere ikusezinak eta doakoak diren lanak.

Emakumeok, gizarteak biziraupenerako beharrezkoak dituen lanen %80a egiten dugu. Baina, lan hori ez zaigu errekonozitzen jendartearen antolaketa eta pertsona guztien bizi baldintzen ongizaterako beharrezko aktibitate gisa.

4. Emakumeon sexu eta ugalketa eskubideak

ez daude bermatuta. Emakumeon sexualitatea, genero aginduek mugatzen jarraitzen dute. Horrela, portaera afektibo eta sexual jakinen jarraibideak markatuz. Ezin ditugu sexu-harreman askeak eraiki, eta ez dugu askatasunik harreman horiek, norekin, noiz eta nola izan nahi ditugun aukeratzeko.

Gure sexualitatearen kontrola ukatu egiten zaigu, gure gorputzaren inguruan erabakitzeo eskubidea eta ugaltzeko gaitasuna ukatzen zaigun moduan. Amatasuna goratzen duen jendartean bizi gara, baina oraingoan ere, ama izan edo ez izan eta izatekotan ama nola izan nahi dugun aske erabakitzea ukatzen zaigu. Horrez gain, gure amatasunaren gainean aske erabakitzeo oinarritzkoa den eskubide bat mugatuta dugu: abortatzeko eskubidea.

Ipar Euskal Herrian abortu eskubideak 12 asteko muga duen bitartean, Hego Euskal Herrian zigor kodean tipifikatuta dagoen delitua da. Hiru balizko egoeratan bakarrik onartzen da, abortatzea tabu bihurtuz eta mediku eta emakumeok segurtasun juridikorik gabe utziz. Azken aldian, abortu legean gerta litekeen aldaketa dela eta, gaia jendartera zabaldu bada ere, oraindik ikusteke dago emakumeon benetako beharretara egokituko den edo orain dela 25 urte gertatutako iruzurra errepikatuko den.

Egoera hau izanik, kartan jasotako ondorengo eskubide hauek azpimarratu nahi ditugu hauetatik aldarrikapenak garatu ahal izateko eta bakoitzak bere jarduera politikoaren esparruan zehaztu ditzan. Euskal Herrian bizi garen emakumeok benetako tresna eraginkorrak behar ditugu askotan idatzi baina aitortu ez zaizkigun eskubideak eskuratzeko. Jendartearen eta erakundeen inplikazioa exijitzen dugu emakumeon egoerari benetako erantzuna emateko.

1. Eskubidea, emakumeak izateagatik gure kontrako biolentziarik ez jasateko.
2. Eskubidea, aktiboki parte hartzeko eta aintzat hartuak izateko jendarteko edozein arlo eta jardueratan.
3. Eskubidea, lana baldintza duinetan burutzeko
4. Eskubidea, zainduak izateko eta emakumea izateagatik etxeko eta zaintza lanak egitera behartuak ez izateko.
5. Eskubidea, laguntza sozialak eta ekonomikoak jasotzeko, hauek famili unitatepean egon barik.

6. Eskubidea, duintasunez bizitzeko, gure bizitzako etapa bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartuz.
7. Eskubidea, elikadurarako, elikagaiak ekoizteko modua erabakitzeo eta duintasunez ekoizteko.
8. Eskubidea, gure identitate sexuala edozein izanda ere, sexualitatea askatasunez bizitzeko.
9. Eskubidea, gure gorputzaren inguruan askatasunez aukeratzeko eta erabakitzeo.

Martxaren dinamika feministaren printzipioak zeintzuk diren gogoratu nahi dugu:

-Demokratikoa, irekia eta plurala: erabakiak hartzeko parte-hartzea eskatuko da, desberdintasunak aberasgarriak izango dira, emakume eta talde partaide guztiok berezko ahotsa izango dugu.

-Feminista: feminismoaren balioak eta filosofia izango dira gure ekintzen eta lanen oinarri eta helburu.

-Euskal Herri osokoa: mobilizazioek eta talde parte-hartzaileek, Euskal Herrian dauden errealitate desberdinak eta aniztasuna bilduko dute.

-Sarean: martxaren helburuak eurenak ere izan daitezten, nahi duten emakumeei egokien iruditzen zaien moduan antolatzeo proposamena egiten diegu, sare feminista ahalik eta gehien zabalduz.

Emakume guztiei eta erakunde feminista guztiei deialdia egiten diegu gurekin bat egin eta martxaren dinamikan parte har dezaten, aldarrikapen hauek eurenak bihurtuz eta guztion artean eta toki bakoitzean gure lehentasuna zein den zehaztuz. Dagoeneko asko gaude Martxan, baina askoz gehiago izan gaitezke eta gure utopia feminista egia bihur dezakegu: abia gaitezen elkarrekin 2010eko martxoan.



EUSKAL HERRIKO MUNDU MARTXA